

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 589.500 euroekin finantzatu du Dantxarineko (Urdazubi) araztegi berria

Esparza kontseilariak inauguratu du Urdazubiko auzo horretako eta Ainhoa udalerri frantseseko hondakin-urak tratatuko dituen azpiegitura hori

Viernes, 14 de diciembre de 2012

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilari José Javier Esparzak Dantxarineko (Urdazubi) araztegi berriaren inaugurazioan parte hartu du gaur goizean. Araztegi horretan Urdazubiko auzo horretako eta Ainhoa udalerri frantseseko salmenten merkataritza-jardueretatik sortutako hondakin-urak tratatuko dira.

Ekitaldian parte hartu dute ere, Communauté de Communes Sud Pays Basque –udal frantsesen mankomunitatea– (CCSPB) mankomunitateko lehendakari Michel Hiriart-ek; Urdazubiko alkate Santiago Villares-ek eta Ainhoako alkate Henri Daguerre-ek; Toki Administrazioako zuzendari nagusi Francisco Pérez-ek; Nilsa sozietate publikoko gerente Andrés Sola-k, eta zonaldeko udaletako, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu orokorreko eta Akitaniako eskualdeko ordezkariak.

Proiektua 201ean Nafarroako Gobernuaren eta aipatutako Communauté de Communes mankomunitatearen artean sinatutako mugaz haraindiko lankidetzak akordioaren barnean kokatzen da; akordio horren arabera, araztegia goitik behera berreraikitzeke erabakia hartu zen haren gaitasuna handitzeko, 2.500 biztanlerentzat, existitzen diren instalazioak ez baitira nahikoak Dantxarineko Salmenten merkataritza eta ostalaritzako jarduera handitu egin delako eta euri-urak aldi berean behin sartzen delako.

Esparzak bere agerraldian azpimarratu du "Communauté de Communes mankomunitateko, Nafarroako Gobernuak, Nilsako, Urdazubiko Udaleko eta proiektuari lotutako enpresen giza taldeen arteko koordinaziorako nahiz elkarlanerako egindako ahalegin etengabea", eta adierazi du "elkarlanerako eta ulermenerako giro horrek etorkizunean ere jarraituko duela interes komuneke beste proiektu batzuk sustatze aldera".

Obrek urtebeteko iraupena izan dute eta araztegi hori hobetzeko 1,5 milioi euro behar izan da. Mugaz haraindiko lankidetzak programa batean dagoen egikaritzea izatean araztegi hori, Europar Batasunak, POCTEFA (Espainia-Frantzia-Andorra Mugaz haraindiko Lankidetzak Programa) Europako programaren barnean, 2010eko otsailan aukera daitekeen inbertsioaren aurrekontuaren % 65eko ekarpena onartu zuen. Europako funtsekin diruz lagundu gabeko kopurua Nafarroak finantzatu du % 90ean (589.500 euro) eta administrazio frantsesak % 10ean (65.000 euro), aipatutako hitzarmenak ezartzen zuenez.

Nafarroari egotzitako inbertsioaren kostua Nilsa sozietate publikoaren bidez bere gain hartu da, Toki Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiari atxikita dagoena, 2011 eta 2012 urteetarako bere jarduketaprogramen barnean.

Azpiegitura berri hori Degremont-Suez enpresak egin du eta, horretarako, Cyclor izeneko izaera trinkoko teknologia erabili du, efluenteen bigarren mailako tratamendurako. Funtzionamendu eteneko prozesua da, eta tratamendu biologikoa nahiz uren iragaztea tanga bakar batean egiten uzten du, ziklokako funtzionamenduaren bidez. Teknologia horrekin arazten dira Frantzian, gaur egun, milioi bat biztanle baino gehiagoren hondakin-urak.